

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala****Deialdia, Udaltzaingoko komisariordearen 15 plaza libre sistemaren bidez eta plaza barne-sustapenez eta jabetzan hartuz betetzeko.**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, zeinaren bidez onesten baita Udaltzaingoko Komisariordearen 15 plaza jabetzan betetzeko deitutako hautaketa-prozesua. Plaza horiek Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak, Udaltzaingoaren klasekoak eta eskala betearazlekoak, Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen arabera, eta A lanbide-sailkapeneko Taldekoak (A2 azpitaldea) dira.

Deitutako plazak honela banatzen dira:

- Txanda irekia: 5 plaza, 3. hizkuntza-eskakizunarekin 3, eta 2, derrigortasunik gabeko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.
- Barne sustapena: 10 plaza, derrigortasunik gabeko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.

Gobernantzaren eta Proiektu Estrategikoen Saileko zinegotzi ordezkariak, alkatearen 2019ko ekainaren 15eko ebazpenaren bidez eta Uriko Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bidez bere gain utzitako ahalmenak erabilita, 2019ko azaroaren 27ko ebazpena eman zuen, hau xedatuz:

EBAZPEN-PROPOSAMENA

«*Bat:* Hautaketa-prozesuaren oinarriak onestea, Udaltzaingoko Komisariordearen 15 plaza jabetzan betetzeko deitutako hautaketa-prozesua. Plaza horiek Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak, Udaltzaingoaren klasekoak eta eskala betearazlekoak, Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen arabera, eta A lanbide-sailkapeneko Taldekoak (A2 azpitaldea) dira. 2017, 2018 eta 2019ko lan-eskaintza publikoetakoak, eta barne-sustapenaren bidez eta lehiaketa-oposizioz betetzekoak (Ebazpen honen Eranskinean ageri dira).

Hori guztia, bat etorri arau hauekin: 7/1985 Legearen 127. artikulua (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen), 4/1992 Legearen 56. artikulutik 59.era artekoak (4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziarena), 315/1994 Dekretuaren 39. artikulutik 41.era artekoak (315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, zeinaren bidez onesten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia hautatzeko eta formatzeko Araudia) eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 15ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez eskuordetzen baitira zenbait eskurantz, legeek langileen arloan esleitzen dizkietenak.

Deitutako plazak honela banatzen dira:

- Txanda irekia: 5 plaza, 3. hizkuntza-eskakizunarekin 3, eta 2, derrigortasunik gabeko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.
- Barne sustapena: 10 plaza, derrigortasunik gabeko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.

Bi: Ebazpen honen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, hala helduz baita 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetatik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearena), eta 29/1998 Legearen 46. artikulutik (29/1998 legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena).

Hiru: ...»

Bilbon, 2019ko azaroaren 27an.— Giza Baliabideen Antolaketako eta Kudeaketako zuzendaria

**KOMISARIORDEAREN 15 PLAZA JABETZAN BETETZEKO
DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Bat. — Eskainitako plazak**

Oinarri espezifiko hauek eta oinarri orokorrek (Gobernu Batzordearen 2016ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onartu eta 2016ko abenduaren 12ko BAOn argitaratu ziren) arautuko dute lehiaketa bidez eta barne-sustapenean Udaltzaingoko Komisariordearen 15 plaza jabetzan betetzeko deitutako hautaketa-prozesua. Plaza horiek Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoak, Udaltzaingoaren klasekoak eta eskala betearazlekoak, Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen arabera, eta A lanbide-sailkapeneko Taldekoak (A2 azpitaldea) dira. 2017, 2018 eta 2019ko lan-eskaintza publikoan daude.

Deitutako plazak honela banatzen dira:

- Txanda irekia: 5 plaza, 3. hizkuntza-eskakizunarekin 3, eta 2, derrigortasunik gabeko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.
- Barne sustapena: 10 plaza, derrigortasunik gabeko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.

Txanda irekian hainbat plaza emakumeentzat erreserbatuko dira. Kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Eusko Legebiltzarraren 4/1992 Legearen 47. bis artikuluan ezarritakoaren arabera izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen bosgarren aldatutako buruzko ekainaren 27ko 7/2019 Legeak hari emandako idazketa berrian.

Eskainitako plazak kopurua handitu egin ahal izango da, arrazoia edozein dela ere, hautaketa-prozesu honek dirauen bitartean Udaltzaingoko komisariordearen plazarik hutsik geldituz gero. Hori horrela da oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoaren arabera. Plaza kopurua handitzen bada, horri buruzko alkate-udalburuaren ebazpena argitaratu egingo da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Ebazpenean plaza kopurua jasoko da eta horietatik zenbatek duten derrigortasun-eguna hizkuntza eskakizunean.

Plaza horiek ere oinarri hauek bete behar dituzte eta, nolabait ere, kopurua handitzeari buruzko xedapena onartuen zerrenda argitaratu baino lehenago eman beharko da.

Barne sustapeneko txandaren bidez betetzen ez diren plazak txanda irekiari gehituko zaizkio. Txanda irekian bete gabe geratzen diren plazak barne sustapeneko txandari gehituko zaizkio.

Bi. — Baldintzak

Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitzen den egunean, salbu, nahitaezkoa den kasuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna; izan ere, hizkuntza-eskakizuna hirugarren ariketan egiaztatu behar da.

Era berean, gainerako baldintza guztiak bete behar dira hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz d) idatz-zatian ezarritakoa izan ezik; kasu horretan, udalaren zerbitzu medikoek egiaztatu behar dute karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario izendatu baino lehen.

2.1. Txanda irekia

Hautaketa prozesu honetan parte hartu nahi duten pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea.
- b) 18 urte edo gehiago izatea.
- c) Gradu unibertsitate-titulua izatea, ingeniartza teknikoa, unibertsitate-diploma, edo gaindituta izatea lizentziatura baten hiru ikasturte oso, arkitektura teknikoa edo horiek baino maila altuagoko beste edozein titulu.
- d) Eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta beren gaitasun-maila bateragarria izatea bete nahi den lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Hori Udalaren Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat; hala ere,



egokitzapenak egin ahal izango dituzte, hala iritziz gero, betiere hautagaien adina eta eginkizun zehatzak aintzat hartuta.

- e) Doluzko delituagatik zigortuta ez egotea, edo Administrazio Publikoren bateko zerbitzutik egotzita edo funtzio publikoan aritzeko desgaituta, birgaitzeko eskubidea alde batera utzi gabe, zigor- eta administrazio-arauekin bat etorruta.
- f) B motako gida-baimena edukitzea.
- g) Azterketa-eskubideagatik oinarri hauetan aurreikusitako tasa ordaindu izana.
- h) Bilboko Udalaren Udaltzaingoko plazak jabetzan betetzeko deialdiko Oinarri Orokorretan ezarritako gainerako baldintzak. Oinarri horiek 2016ko abenduaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratu ziren.

2.2. Barne sustapena

Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi duten pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Karrerako funtzionarioa izatea Bilboko Udaleko Udaltzaingoko ikuskapen-eskalan.
- b) Bilboko Udaleko Udaltzaingoa zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzian, edo genero-indarkeriaren ondorioz eszedentzian egotea.
- c) EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legea indarrean sartu zenetik aurrera komisariordea kategoriarako dagoen bigarren deialdia denez eta lege horren sei garren xedapen iragankorrek ematen duen ahalmena dela-eta, bi urtez benetako zerbitzuak eman izana, Udaltzaingoa ikuskapen-eskalako kategorietan.
Jatorrizko eskaletan benetako zerbitzuak emandako denbora zenbatzeko, barne-sustapenean parte hartzea ahalbidetzen duten administrazio egoeretan emandako denbora bertan sartu aurretik egindako praktikaldia gehituko da, baldin eta hautaketa-prozesua gainditzen bada.
- d) Graduak unibertsitate-titulua izatea, ingeniari tekniko, unibertsitate-diploma, edo gaindituta izatea lizentziatura baten hiru ikasturte oso, arkitektura tekniko edo horiek baino maila altuagoko beste edozein titulu.
- e) Era berean, titulazio hori eduki gabe ere EAEko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 59.2. artikuluan zehaztutakoaren arabera azpiko sailkapen taldeko titulazioa daukatenak lehiatu ahal dira, baldin eta gaikuntza-ikastaroa 2019ko uztailaren 8a baino lehen amaitu badute.
- f) B motako gida-baimena edukitzea.
- g) Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik zigorrak jaso ez izana, salbu eta jarritako zehapena baliogabetzea lortu bada.
- h) Eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta beren gaitasun-maila bateragarria izatea bete nahi den lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Hori Udalaren Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat; hala ere, egokitzapenak egin ahal izango dituzte, hala iritziz gero, betiere hautagaien adina eta eginkizun zehatzak aintzat hartuta.
- i) Azterketa-eskubideagatik oinarri hauetan aurreikusitako tasa ordaindu izana.
- j) Aplikatzekoak diren gainerako baldintzak, Bilboko Udalaren lanpostuen zerrendako plazak jabetzan betetzeko deialdiko indarrean diren oinarri orokorretan ezarriak. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2016ko abenduaren 12an, baita Udalaren webgunean ere (<https://ope.bilbao.eus>).

Hiru. — Azterketa-eskubideak

6,00 eurokoak izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko eskabide-orria bete behar da (<https://ope.bilbao.eus>) web orrian. Era berean,



barra-kodea duen eskabidearen edo ordainagiriaren kopia jaitsi eta dokumentu horretan adierazita dauden Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztuta ordaindu daitezke azterketa-eskubideak.

Halaber, telematikoak ez diren bitartekoen bidez aurkeztutako eskarien kasuan, tasaren ordainketa Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzara bidalitako posta bidezko igorpenaz egin ahalko da. Posta bidezko igorpenaren egiaztatzea oinarri hauetan erantsitako eskari ofizialaren ereduarekin batera aurkeztu beharko da (II. eranskina).

Azterketa-eskubideak, edonola ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira; osterantzean, baztertzeko zioa izango da.

Lau. — Eskabideak

Eskabideak (<https://ope.bilbao.eus>) web-orrian ezarritako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, helbide elektroniko horretan eskura jarrita dagoen eredu ofiziala erabiliz.

Txanda irekian edo barne sustapenekoan aurkezten den zehaztu beharko du, txandetako batean baino ezin ezingo baitu parte hartu.

Hala ere, nahi dutenek Aznar Eraikinean dagoen bulegora jo ahal dute (Venezuela plaza, 2., 5. zenbakia), Gobernantzaren eta Proiektu Estrategikoen Saileko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak han antolatuko duen erregistro-bulego lagungarria, eta, han, ordenagailuak edo beste bitarteko tekniko batzuk izango dituzte eskura, eskabide-orria betetzeko, eta aholkua eta laguntza ere eskainiko zaie eskabide-orria behar bezala betetzeko.

Era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan aurkeztu daitezke eskabideak. Hori horrela da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan, laugarren xedapen iragankorrean, xedapen indargabetzaile bakarrean eta azken xedapenetatik zazpigarrenean ezarritakoarekin bat etorrira. Ondorio horietarako, oinarri hauetan erantsitako eskari ofiziala erantsi da (II. eranskina), azterketa-eskubideen tasa posta bidezko igorpenaren bidez ordaindu izanaren egiaztagiriarekin batera aurkezteko.

Eskabidean deialdiko baldintza guztiak betetzen direla adierazi beharko da, baita baloratu beharreko merezimenduak alegatu ere, zerrenda batean aipatuz eta behar den moduan identifikatuz. Eskabidean alegatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko. Hala ere, ez da beharrezkoa izango Bilboko Udalak bere esku duen espediente pertsonalean lehenagotik jasota dauden merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea, Udalak ofizioz egiaztatu eta baloratuko baititu.

Eskabidean hautaketa-probak zein hizkuntzatan egin nahi diren adierazi behar da: euskara edo gaztelania. Ez badu ezer adierazten horri buruz, adituko da gaztelaniaz egin nahi dituela proba guztiak.

Eskabidea aurkezteko orduan, ez dago zertan aurkeztu parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agirien kopiarik ez eta alegatutako merezimenduenik; geroago egiaztatuko dira horiek, Epaimahaiak edo Gobernantzaren eta Proiektu Estrategikoen Saileko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen duten unean.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, hogeita (20) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Bost. — Epaimahaia

Hautaketa-sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluazioa epaimahaiari egokituko zaizkio. Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.



Epaimahaia kide anitzekoa izango da. Haren osaera bat etorri behar da bere kideen inpartzialtasunaren, profesionaltasunaren eta espezialitatearen printzipioekin, baita emakume eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioarekin ere.

Indarrean dauden legeetan eta Bilboko Udalaren lanpostuak jabetzan betetzeko Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian burua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira. Horien artean Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez, norbanako gisa jardungo duena.

Inpartzialtasun-printzipioa dela eta:

- a) Epaimahaietako edo aukeraketa-organoetako kideak norbanako izaeraz izango dira hala. Izaera hori ezin da inoren ordezkari edo inoren kontura eskuratu.
- b) Ezin izango dira hautaketako epaimahaietako kide izan aukeraketa edo izendapen politikoko langileak, behin-behineko langileak, bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratadun langileak, edo azken bost urteetan jendea enplegu publikoan sartzeko prestatzen aritu diren pertsonak.
- c) Epaimahaietako edo aukeraketa-organoetako kide diren pertsonak abstenitu beharko dira baldin eta beraien inpartzialtasuna zalantzatzen geratzen bada arrazoi pertsonalengatik, profesionalengatik edo bestelakoengatik, baita indarrean dauden antolamendu juridikoan aurreikusitako gainerako inguruabarrengatik ere.

Espezialitate printzipioa dela bide, botorako eskubidea duten kide guztiek sartzeko erijitzen den titulazioaren maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa eduki behar dute. Haien erdiak, gutxienez, jakintza-arlo bereko titulazio bat eduki behar du.

Ordezkaritza orekatuaren printzipioa dela bide, ezinezkoa dela justifikatzen ez bada, aukeraketa-organoen eraketan emakumeen eta gizonen kopurua orekatuta egon behar da, eta gaikuntza, ahalmen eta prestaketa egokiak izan behar dituzte. Ordezkaritza orekatua dago baldin eta lau kide baino gehiagoko hautaketa-organoetan sexu bakoitzeko pertsonak gutxienez %40 badira; gainerako kasuetan, bi sexuetako pertsonak daudenean.

Epaimahaiak, egoki baderitza, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu hautaketa-prozesuko probaren batean edo guztietan kideei laguntzeko. Aholkulariok aholkularitza eta laguntza tekniko eman baino ez dute egingo, zeinek bere espezialitatean. Aholkulari horien jarduna objektibotasun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun printzipioen mende egongo da modu berean.

Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, HAEK izendatua, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, bestelakorik adierazi ezean.

Sei. — Hautaketa-prozedura

Hautagaiak lehiaketa-oposizioaren bidez eta barne promozioan aukeratuko dira. Fase biak egin behar dira. Prestakuntza-ikastaroa eta praktika aldia ere egin behar dira, prozedura osatzeko.

1. Oposizio-fasea

Lau azterketa egin behar dira oposizioan. Lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena derrigorrezkoak eta baztertzailerak izango dira. Laugarrena euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da. Ariketa hau derrigorrezkoa eta baztertzailerak izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna daukaten plazetarako; gainerako plazetarako borondatezkoa izango da eta ez da baztertzailerak izango.

Hala ere, epaimahaiak erabaki dezake ariketak eta haien barruan egin beharreko probak deialdian ezarritakoak besteko hurrenkera batean egin daitezela; erabaki dezake, orobat, ariketa edo proba bat baino gehiago egitea egun berean. Hala erabakitzen badu, ordeza, probetako eta/edo ariketetako emaitzak deialdiaren oinarrietan ezarritako hurrenkera argitaratuko dira. Aurreko proba eta/edo ariketak gainditu dituztenen emaitzak baino ez dira argitaratuko proba eta/edo ariketa bakoitzean, oinarrietan ezarritako hurrenkerari jarraituz.

Hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzearren, epaimahaiak aukeran izango du probak egiteko data eta/edo lekuak egokitzea emakumeren batek edo batzuek



hala behar badute haurdunaldiagatik arriskuagatik edo erditzeagatik edo erditu aurre-aurreko edo oste-oste epean egoteagatik, betiere egoera horren berri eman bazaio epaimahaiari proba edo ariketa egin aurretik eta mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatu bada.

Lehenengo ariketa. — (Ezagutzei buruzko proba)

Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Ariketa hau 0tik 60,00 puntura kalifikatuko da, barne sustapeneko txandan zein txanda irekian, eta gutxienez 30,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Test-motako bi galdera-sorta idatziz erantzun beharko dute hautagaiak, epaimahaiak zehaztutako denboran eta baldintzetan. Galdera bakoitzak lau erantzun dauzka eta bakarra izango da zuzena.

Erantzun zuzen bakoitzari puntu bat emango zaio, eta erantzun gabe utzitakoagatik 0,333 puntu kenduko dira. Bi erantzun ematen badira edo erantzunik ematen ez bada, ez da punturik kenduko, eta, beraz, zuzen erantzundakoei ez zaie baliorik kenduko.

— Test-motako lehenengo proba. Deialdiaren I. eranskineko «Gai orokorrak» ataleko gaietan oinarrituko da (1etik 12ra). 0,00 puntutik 10,00 puntura baloratuko da.

Epaimahaiak aurretiaz argitaratutako galdera-sortaren artean erabakiko ditu test-motako lehenengo probako galderak.

Barne sustapeneko txandako hautagaiak ez dute lehenengo proba hau egin behar, udaltzaingoko plazetan sartzeko gainditu zituzten ariketetan erakutsi baitzuten gai horiei buruzko ezagutza nahikoa daukatela edo lanbidearen jardunean egiaztatu baitute ezagutza.

— Test-motako bigarren proba. Deialdiaren I. eranskineko «Gai espezifikoak» ataleko 13tik 60era bitarteko gaietan oinarrituko da. Honela kalifikatuko da:

- Txanda irekian: 00,00 puntutik 50,00 puntura.
- Barne-sustapeneko txandan: 60,00 puntu.

Test-motako bigarren proba hau izangai guztiek egin beharko dute, txanda irekikoek zein barne sustapeneko txandakoek.

Bigarren ariketa. — (Proba psikoteknikoa)

Txanda irekian, bigarren ariketak (proba psikoteknikoa) bi proba izango ditu (test psikoteknikoa eta nortasun-proba), biak nahitaezkoak eta baztertzailak. Gehienez jota, 20,00 puntura arte baloratuko da.

Barne sustapenekoan proba bakarra izango da (nortasun-proba), nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehienez jota, 20,00 puntura arte baloratuko da.

- a) Test psikoteknikoa, Udaltzaingoko komisariordearen kategoriako polizia-zereginak egiteko izangaiek eduki beharreko gaitasunak ebaluatzeako proba. Test-motako galdera sorta bat erantzun beharko dute, aldagai hauek ebaluatzeako: hitzeko gaitasunak, arrazoitze gaitasuna eta datuak interpretatzeko gaitasuna.

Ariketa hau 0,00 eta 10,00 puntu bitartean baloratuko da eta gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu eta bakarra izango da zuzena.

Erantzun zuzen bakoitzari puntu bat emango zaio, eta erantzun oker bakoitzagatik 0,333 puntu kenduko dira. Erantzunik gabeko galderak ez dira zigortuko eta ez da punturik kenduko.

Barne sustapeneko txandako hautagaiak ez dute test psikoteknikoa egin behar, udaltzaingoko plazetan sartzeko gainditu zituzten ariketetan edo lanbidearen jardunean jada egiaztatu zutelako.

- b) Nortasun-proba, Udaltzaingoko komisariordearen kategoriako lan-jardueraren inguruko jokabideak neurtzeko, Udaltzaingoko unitateak antolatze, gidatzeko, orientatzeko, koordinatzeko eta gainbegiratzeko gaitasuna, adibidez.



Nortasun-proba honela baloratuko da:

- Txanda irekian: 0,00 eta 10,00 puntu bitartean baloratuko da eta gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.
- Barne sustapeneko txandan: 0,00 eta 20,00 puntu bitartean baloratuko da eta gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketa. — (Elkarrizketa pertsonala)

Derrigorrezkoa eta baztertzaila, gehienez ere 20,00 puntu lor daitezke.

Elkarrizketa pertsonala, deitutako plazako funtzioak eta zereginak betetzeko hautagaiaren egokitasuna zehazteko. Ariketa hau 0,00 eta 20,00 puntu bitartean baloratuko da eta gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Elkarrizketa pertsonala egin aurretik, hautagaiek curriculum vitae laburtua aurkeztu beharko dute, hain zuzen ere, bigarren ariketa (proba psikoteknikoa) amaitu ondoren formatu normalizatuan osatuko dutena. Curriculum vitae-ari ez zaio punturik emango, helburu bakarra, elkarrizketa pertsonala egiteko laguntza-elementua izatea.

Hirugarren ariketa hau izangai guztiek egin beharko dute, txanda irekikoek zein barne sustapeneko txandakoek.

Laugarren azterketa. — (Euskarazko proba)

Derrigorrezkoa eta baztertzaila euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten plazen kasuan. Gainerakoetan, ostera, borondatezkoa, eta ez da baztertzaila izango.

Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1. artikulua.

Euskarazko proban, Gai ala Ez Gai kalifikazioak emango dira.

Baloratuko bada, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera, IVApek emandako 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria eduki beharko dute, edo, bestela euskara jakitea egiaztatzen duten gainerako titulu edo ziurtagiriak, Hizkuntzen Europar Erreferentzia Marko Bateratuaren C-1 mailarekin parekatuak, 86/1997 Dekretu apirilaren 15ekoaren 41. artikuluan, 297/2010 Dekretu azaroaren 9koaren 3. artikulua eta hurrengoetan nahiz 47/2012 Dekretu apirilaren 3koan aipatzen direnak.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den lanpostuetan, euskara merezimendu gisa baloratuko da. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuetan, aldiz, ez da baloratuko, ezinbesteko baldintza denez gero hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Lanpostuari dagokion 3. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria ez dutenek eskakizuna egiaztatzeko proba egin nahi dutela adierazi beharko dute, berariaz, prozesu honetan parte hartzeko eskaeran. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetara sartzeko, ariketa horretan gai kalifikazioa lortu beharko dute.

Nahitaezkoa eta baztertzaila den euskarazko azterketa gainditzen edo egiaztatzen ez dutenek, edo azterketa gainditu arren lanpostuak lortzeko aukerarik ez dutenek aurrera jarraitu ahal izango dute hautaketa-prozesuarekin, nahitaezko hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuetan. Horrela eginez gero, ariketa horretan lortutako kalifikazioa Lehiaketaren faseko gainerako merezimenduetan lortutako kalifikazioei gaineratuko zaie, txanda irekian nahiz barne sustapenekoan, kopuru hauekin:

- 3. hizkuntza-eskakizuna: 21,75 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 14,50 puntu.
- 1. hizkuntza-eskakizuna: 7,25 puntu.



Hizkuntza-eskakizunen euskarazko proba egin aurretik egiaztatu beharko dira, Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzan ziurtagiria edo titulua aurkeztuz; aurkeztu ezean, ez da salbuespen hori aplikatuko ezta merezimendu gisa baloratuko ere, kasuaren arabera. Hala ere, ziurtagiri hori ez da aurkeztu beharko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dagoela agertzen denean Euskarako Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Bilboko Udalari hori horrela dela egiaztatu dezan aipatutako erregistroan.

Oposizio-fasean lortu daitekeen gehieneko puntuazioa, euskarazko proba alde batera utzita, 100,00 puntu izango dira, txanda irekian nahiz barne sustapenekoan.

2. Lehiaketaren fasea

Oposizio-fasea amaitzen denean, fase hau gainditu duten hautagaiekin hasiko da lehiaketaren fasea.

Lehiaketa fasean, izangaiek eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak edo Bilboko Udalak bere esku duen espediente pertsonalean ageri diren merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. (<https://ope.bilbao.eus>) web orrian argitaratutako iragarkian emandako epean egiaztatu beharko dira merezimenduak, hala balegokie.

Merezimenduak oinarri hauetan deskribatzen denaren arabera baloratuko dira, eta ezingo da baloratu besterik.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte lortutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira, Oinarri Espezifiko hauetan eta indarrean dauden Oinarri Orokorretan ezarritako baldintzen arabera eskuratu badira.

Lehiaketaren fasean lortu daitekeen gehieneko puntuazioa, euskarazko proba alde batera utzita, 45,00 puntu izango dira, txanda irekian nahiz barne sustapenekoan.

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den dotazioetan baino ez da euskara merezimendu gisa baloratuko.

Merezimendu hauek baloratuko dira:

1. Lan esperientzia: gehienez ere, 30,00 puntu.

Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren lanpostuetan egindako lana eta polizia-lanagatik jasotako sariak aintzat hartuko dira.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren lanpostuetan egindako lana: gehienez ere, 27,00 puntu.

Hurrengo baremo partzialaren arabera baloratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko polizian emandako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko (unitatez behar zatiak ez dira kontuan izango). Hautagaiak deialdi honetan parte hartzeko eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urtean betetako lanpostuak baino ez dira kontuan izango.

— Eskala exekutiboko lanpostuetan, komisariorde kategoriarekin: 0,90 puntu.

— Ofizialorde kategoriako ikuskapen eskalako lanpostuetan: 0,60 puntu.

— Oinarrizko eskalako agente leheneko kategoriako lanpostuetan: 0,30 puntu.

b) Polizia-lanarengatik eskuratutako aintzatespenak: 3,00 puntu gehienez.

Polizia-lana saritzeko dominak, polizia-zerbitzua saritzeko diploma eta merituzko jarduketengatik zorionak ere baloratuko dira, behar bezala egiaztatuta daudenean, Herrizaingo Sailaren urtarilaren 26ko 27/2010 Dekretuan (2010eko otsailaren 3ko EHAA) dominak emateko ezarritako betekizunak betetzen ez direnean, eskala honekin bat etorrira:

— Domina bakoitzagatik: 1,00 puntu.

— Polizia-zerbitzua saritzeko diploma bakoitzeko: 0,50 puntu.

— Zorionak eman izandako bakoitzeko: 0,25 puntu.

2. Antzintasuna: gehienez ere 7,00 puntu:

Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren lanpostuetan antzintasuneko urte bakoitza 0,20 punturekin baloratuko da, eta unitatetik behar zatiak ez dira aintzat hartuko. Ondorio horietarako, urteek 365 egun izango dituzte.



Deialdian parte hartzeko exijitzen diren baldintza eta betekizunak ezin izango dira merezimenduztat jo, EAEko Poliziaren Hautespen eta Prestakuntza Araudia onartu duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Prestakuntza- edo espezializazio-ikastaroak: gehienez 4,00 puntu.

1999ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako prestakuntzako ikastaroetan edo jardueretan ikasle edo irakasle jardun izana baloratuko da, ez besterik. Ikastarook lanorduetatik kanpokoak izango dira. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak edo Bilboko Udaltzaingoaren Zuzendaritzak bakarrik nahiz lankidetzan airtortutako, emandako edo antolatutako ikastaroak baino ez dira baloratuko.

Ikastaroetan ikasle edo irakasle jardun izana diploma edo egiaztagiriaren bidez ziurtatu behar da, nahitaez adierazita ikastaroaren eskola-orduen kopurua.

Ikasle edo irakasle jardun izanaren lanalditik kanpoko orduak egiaztatzeko, dagokion Administrazioaren organo eskudunaren egiaztagiri bat aurkeztuko da.

Berlaratzea baremo honen arabera konputatuko da:

- Ikastaroak 10 eta 19 ordu bitartekoak direnean: 0,25 puntu.
- Ikastaroak 20 eta 30 ordu bitartekoak direnean: 0,50puntu.
- Ikastaroak 30 ordutik gorakoak direnean: 1,00 puntu.

Ikastaroetan ikasle edo irakasle jardun izanaz gain, gaitasuna lortu izana edo gaintu izana ziurtatzen bada, lehen adierazitako puntuazioa %50 igoko da; hala ere, ezin izango da merezimendu honetan ematen den gehienezko puntuazioa gaintu.

Ikastaroetan ikasle edo irakasle jardun izana diploma edo egiaztagiriaren bidez ziurtatu behar da, nahitaez adierazita ikastaroaren eskola-orduen kopurua.

Gai berari buruzko ikastaroetan ikasle edo irakasle behin baino gehiagotan jardun bada, azken ediziokoa bakarrik baloratuko da; salbuespena, aldaketa teknikoak edo arategietakoak egon eta epaimahaiak funtsezko aldaketak gertatu direla irizten dionean. Azken kasu honetan, gehienez ere ikastaro bi baloratuko dira.

Ez dira baloratuko titulazio akademiko ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barruan dauden ikastaroak edo jarduerak.

Prestakuntza-ikastaroetan ikasle edo irakasle jardun izana baloratzeko denboraren muga 1999ko urtarrilaren 1a jarri da, Bilboko Udalaren egituraren eta antolaketaren eraldaketa handia egon delako, baita arauen eta bitarteko materialen bilakaeragatik ere, eta teknologia eta lan-metodo berrien erabileragatik ere bai. Horren ondorioz, zerbitzu berriak ematen hastea gertatu da, edo lehendik egon diren zerbitzuak emateko modu berriak sortu dira.

4. Unibertsitate-titulazio ofizialak: gehienez ere 2,00 puntu:

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak hala izendatutakoak bakarrik onartuko dira.

Honako hauek baloratuko dira:

- 3. mailako unibertsitate-titulua, MECESen arabera (Kualifikazioen Espainiako Markoa Goi-mailako Hezkuntzarako): Lizentziatura/Gradua masterrarekin. 2,00 punturekin baloratuko da.
- 2. mailako unibertsitate-titulua, MECESen arabera (Kualifikazioen Espainiako Markoa Goi-mailako Hezkuntzarako): Diploma, gradua. 1,00 punturekin baloratuko da.

Merezimendu gisa baloratua izateko, hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizun gisa alegatzen denaz bestelakoa izan behar da titulazio hau.

Titulu bat beharrezkoa denean goragoko mailako beste bat eskuratzeko, orduan gorengo mailakoa bakarrik baloratuko da.

5. Hizkuntzak: gehienez ere, 2,00 puntu.



Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea, behar bezala egiaztatuta, hizkuntzok jakitea komeni delako. Hauek dira baloratuko diren hizkuntzak: frantsesa, ingelesa, alemana eta/edo italiera. Balio akademikoko tituluak emateko lege-gaitasuna duten hezkuntza eta irakaskuntza zentroek emandako agiri ofizialaren bidez egiaztatuko da. Merezimendu hori xehetasun eta maila hauen arabera baloratuko da:

- Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko B2 maila edo gorago: puntu 1,00 hizkuntza bakoitzeko.
- Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko B1 maila: 0,50 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza jakitea merezimendu moduan baloratzeko, hizkuntza horren jakite-maila egiaztatzeko aurkezten diren tituluetan 4 hizkuntza trebeziak egongo dira jasota (ahozkoaren ulermena, idatzitakoaren ulermena, mintzamina eta idazmena).

Hizkuntza bera ezin da behin baino gehiagotan baloratu eta beraz, gorengo maila bakarrik hartuko da kontuan.

Zazpi. — Behin betiko sailkapena

Hautaketa-prozesuaosatzen duten ariketa eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, Epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea gainditu duten pertsonen puntuazioa eta lehiaketa-fasearen merezimenduen balorazioa batuta erabakiko da hurrenkera. Kopurua ezin da izan eskainitako plaza guztiena baino handiagoa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Modu berean, epaimahaiak izendapenerako proposamena egingo du, zerrenda hori udalbatzarreko presidenteari bidaliz. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori erabiliko da noiz ere plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetzen ez baita, ez beste ezertarako. Hala ere, zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, ez eta lanpostuaz jabetzeko ere, Oinarri Orokorretako Hamargarren Oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Deitutako bakanteen adjudikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Eusko Legebiltzarraren 4/1992 Legearen 47. bis artikuluan ezarritakoarekin bat egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen bosgarren alaketari buruzko ekainaren 27ko 7/2019 Legeak hari emandako idazketa berriaren arabera.

Zortzi. — Agiriak aurkeztea

Bilboko Udalaren plantillako lanpostuak jabetzan betetzeko Oinarri Orokorretako hamabigarren oinarrian ezarritakoa aplikatuko da (2016ko abenduaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 234. zenbakia).

Bederatzi. — Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia

Lehiaketa-oposizio fasea puntuazio onenarekin gainditzen duten hautagaiak prestakuntzako hautaketa ikastaro bat eta praktikaldi bat gainditu beharko dituzte, hautaketa-prozesuaren beste fase bat izango baita. Fase hori Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatu eta burutuko du.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira eta eskubidea izango dute indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko faseetako batean deskalkifikatu arte.

Prestakuntzako hautaketa-ikastaroaren eta praktikaldiaren helburua da behar beste prestakuntza ematea plaza jabetzan hartu nahi duten pertsonen, Bilboko Udalaren udaltzaingoko komisariorde modura izango dituzten lanpostuetako funtzioak modu eraginkorrean gauzatzeko.



Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio ikastaroaren arau orokorrak, edukia, gaiak, iraupena eta emateko lekua eta, oro har, prestakuntzako hautaketa-ikastaroaren eta praktikaldiaren antolaketa eta garapena zehaztea.

Praktiketako funtzionarioei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren barne araubideko erregelamendua eta barne araubideko araudia aplikatuko zaizkie prestakuntza-ikastaroak irauten duen bitartean.

Modu berean, diziplina-araubidean, egitatea ez denean irakaskuntzako diziplinako arau-hauste hutsa, izaera ordeztailerekin, EAEko Polizia kidegoen diziplina-araubideko arauak aplikatuko dira.

Haurdunaldia, erditzea edo erditu osteko aldia dela eta prestakuntza eta praktikaldia egin ezin duten pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dituzte izendapenaren eguneko administrazio-ondorioekin. Ondorio ekonomikoak Akademian hasi aurretik lanpostua jabetzan hartzen denean hasiko dira.

1. *Prestakuntza-ikastaroa*

Prestakuntza-ikastaroak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Udaltzaingoko komisariorderako adosten duen iraupena izango du, eta kategoria horretako ikaske-ta-planean ezarritakoaren arabera emango da.

Ikastaroaren balorazioa egiteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak curricu-lumaren diseinuan ezarrita dituen jarraibideak eta irizpideak aplikatuko dira.

Prestakuntza-ikastaroan, ikaslearen espedienteaz aztertuta, ikusiko balitz ezinezkoa zaiola edo bidezkoa ez dela gainditzea, prozesutik kanpo utzi ahal izango du epaimahaiak erabaki arrazoitua emanda.

Prestakuntza-ikastaroko azken kalifikazioak Atarian, Udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren web orrian (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko dira.

2. *Praktikaldia*

Fase akademikoa gainditzeko duten hautagaiak praktikaldira batuko dira; gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, oporrak eta bajak kontuan hartu barik.

Praktikaldia Udaltzaingoko unitateetan egingo da. Eskudun organoak zehaztuko ditu hautagaiak unitateetara atxikitze prozedurak, bai eta garapen-araubidea ere, ondoko ataletan jasotako aurreikuspenen arabera:

1. Udaltzaingoko komisariordearen berezko funtzioak betetzeko hautagaiaren egokitasuna ebaluatuko da praktika aldian, eraginkortasun profesionala eta lanak betetzea, eta bereziki hauek: lanpostuarekiko interesa, agintzeko gaitasuna, eskuordetzeko, antolatze, plangintza egiteko, zuzentzeko edo lider izateko gaitasuna; autokontrola, egoera gatazkatsuei irtenbidea ematea eta agente lehenaren plaza-aren berezko eginkizunak betetzeko interesgarritzat jotzen diren gainerakoak.
2. Ebaluazioa egiteko ebaluazio-txostena bete beharko da eta ondoren, Atarian, Udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren web orrian (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko da.
3. Praktikaldian ebaluazio jarraitua egingo da, eta praktikan dauden langileen jardueren jarraipena eta txostena egiteko ebaluatzaileak izendatuko dira. Horien kopurua bakoitza izango da beti, eta sekula ez hiru baino gutxiago; ebaluatzaileen arteko bat hautagaiaren gainbegiralea izango da.
Hautagaiei ebaluatzaileak nortzuk izango diren jakinaraziko zaie eta, hilean behin, gainbegiraleak —ebaluatzaileek emandako eta berak jasotako informazioa eta oharrak kontuan hartuta— txostena egingo du 1) puntuko alderdiei buruz. Praktikaldiaren amaieran, begiraleak hautagaiaren jarduerari buruzko txosten orokorra igorriko dio eskudun organoari.
4. Ebaluatzaileak (3. puntuan aipatutakoak) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio- eta errefusatze-araubideari lotuta daude.



5. Praktikaldiko arduradunak gai edo ez gai kalifikatuko du hautagaiaren praktikaldia, betiere aurretik egindako txostenetan oinarrituta. Txosten horietan alderdi hauek baloratuko dira:
 - a) Jarduera profesionalean ager daitezkeen arazoen aurrean nola moldatzen den eta arazook nola konpontzen dituen.
 - b) Taldeak zuzendu eta gestionatzea.
 - c) Lanbideari lotutako trebetasunak eta baliabideak.

Hamar. — Behin betiko izendapena

Hautagaien behin betiko kalifikazioa eta hautagaien lehentasun-hurrenkera ateratzeko, oposizio-aldiko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian gai izendatu izana.

Izendapena interesdunei jakinaraziko zaie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Atarian, udaltxeko iragarki-taulan eta udalaren webgunean (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko da.

Hamaika. — Lanpostuaz jabetzea

Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetuko dira eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, hamar eguneko epea daukate, izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da eta euren eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horietan, udalburuak proposatuko du oposizioko ariketak gaindituta eta ariketen eta merezimenduen faseetako puntuak batuta baloraziorik onenak lortu dituzten hautagaiak izendatzea, kargu uztearen ondorioz deitutako lanpostu-kopuruaren barruan sartzen badira. Hori guztiori oinarri espezifiko hauetako zazpigarrenean adierazitakoa-rekin bat etorrira.

Haurdunaldia, erditzea edo erditu osteko aldia dela-eta ezin denean hautagaia haren promozioko gainerakoekin batera izendatu karrerako funtzionario, promozioaren izendapenaren eguna onartuko zaio administrazio-ondorioetarako (antzinatasuna eta karrera profesionala). Ondorio ekonomikoak lanpostua jabetzan hartzen duenean hasiko dira.

Hamabi. — Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Bilboko Gobernu Batzordeari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da.

**I. ERANSKINA****GAITEGIA****GAI OROKORRAK**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio nagusiak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legegintza garatzekoak eta betearaztekoak.
3. gaia: Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrietako udal antolaketa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak: X. titulua).
4. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Araudi organikoak.
5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
6. gaia: Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarriak.
7. gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea.
8. gaia: Datuen babesa: Apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreak lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Erregelamendu horrek 95/46/EB Zuzentaraua baliogabetu du. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
9. gaia: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea, Euskal Autonomia Erkidegokoa. Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Aukera Berdintasunerako Bilboko Udalaren IV. Plana.
10. gaia: Tokiko erakundeen ordenantzak eta araudiak.
11. gaia: Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumenen banaketa. Nola banatzen diren eskumenak Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren autonomia-estatutuan.
12. gaia: Botere judiziala. Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Justizia Auzitegi Gorena: antolaketa, eremua eta osaera.

GAI ESPEZIFIKOAK

13. gaia: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, EAEko Poliziarena, ekainaren 27ko 7/2019 Legeak emandako idazkuntzan, bosgarren aldiz aldatzen duena: Atariko titulua; II. tituluko I. kapitulua (Xedapen orokorrak) eta II. kapitulua (Kode deontologikoa).
14. gaia: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, EAEko Poliziarena, ekainaren 27ko 7/2019 Legeak emandako idazkuntzan, bosgarren aldiz aldatzen duena: III. tituluko IV. kapitulua (Eskubideak eta betebeharrak) eta VII. kapitulua (Diziplina-araubidea); V. tituluko I. kapitulua (Xedapen orokorrak), II. kapitulua (Egitura) eta III. kapitulua (Mugikortasun-agentek).
15. gaia: 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabekoen erantzukizun penala arautzen duena: Atariko titulua (1. artikulua); I. titulua «Legearen aplikazio-eremua» (2-6 artikulua); II. titulua «Neurriak», 7-15 artikulua; 17. artículo («Adingabeen atxilotaketa»); VIII. tituluko «Erantzukizun zibila» 61. artikulua.
16. gaia: 1774/2004 Errege Dekretua, Adingabekoen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren araudia onartzen duena: «Polizia judizialaren jarduketa» (2. artikulua), «Adingabekoa atxilotzeko modua» (3. artikulua).
17. gaia: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa: IV. tituluko («Zigor-arloko babesa») 36. artikulua, «Lesioen aurkako babesa», 37. artikulua, «Tratu txarren aurkako babesa», 38. artikulua, «Mehatxuen aurkako babesa», 39. artikulua, «Derrigortzeen aurkako babesa»,



40. artikulua, «Kondena urratzea», eta 41. artikulua, «Iseka arinen aurkako babes», eta babes-agindua (1/2004 Lege Organikoaren 62. artikulua, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onartutako Prozedura Kriminalako Legearen 544.ter artikuluekin batera).

18. gaia: Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Sailaren, Herritarren Segurtasun Sailaren, eta Emakumearen eta Berdintasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren arteko Koordinaziorako Protokoloa, genero-indarkeriako egoeretan arreta integrala emateko.

19. gaia: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, herritarren segurtasunaren babesari buruzkoa: III. kapitulua, «Herritarren segurtasuna mantendu eta berrezartzeko jarduketak» (14-24 artikulua).

20. gaia: Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko Legearen testu batekina onartu duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretua: IV. tituluko IV. kapitulua, «Deuseztasuna, kaltegarritasuna eta baimenak indarraldia galtzea. Gidatzeko baimen edo lizentzia berri bat eskuratzea.» (69-73 artikulua); V. tituluko, «Zehapen-araubidea», I. kapitulua, «Arau-haustea» (74-79 artikulua), II. kapitulua, «Zehapenak» (80-81 artikulua), III. kapitulua, «Erantzukizuna» (82. artikulua), IV. kapitulua, «Zehapen-prozedura» (83-96 artikulua), VI. kapitulua, «Behin-behineko neurriak eta bestelako neurriak» (103-107 artikulua); 1. eranskina, «Oinarrizko kontzeptuak», eta 2. eranskina, «Puntuen galera dakarten arau-haustea».

21. gaia: 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, zeinaren bidez Zirkulazioaren Araudi Orokorra onartu zen, Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna aplikatu eta garatzeko, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onartu zena: 1-28 artikulua.

22. gaia: 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidariaren Araudi Orokorra onartu zuena: I. tituluko I. kapitulua, «Gidatzeko baimena eta lizentzia», 4-7 artikulua; II. kapitulua, «Beste herrialde batzuetan emandako gidabaimenak», 15-22 artikulua; eta IV. kapitulua, «Gidatzeko administrazio-baimenen deuseztasuna edo kaltegarritasuna eta indarraren galera», 35-39. artikulua.

23. gaia: 920/2017 Errege Dekretua, ibilgailuen ikuskapen teknikoa arautzen duena: 1-12 artikulua.

24. gaia: 8/2004 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 29koa, motordun ibilgailuaren zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko legearen testu bat egina onartu zuena: 2, 3, 8 eta 10. artikulua.

25. gaia: 1507/2008 Errege Dekretua, irailaren 12koa, motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruaren araudia onartu zuena: 6, 7, 14 eta 21. artikulua.

26. gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena: XVII. titulua, «Segurtasun kolektiboaren aurkako delituak», IV. kapitulua, «Bide-segurtasunaren aurkako delituak», (379-385.ter artikulua).

27. gaia: 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta beraien integrazio sozialari buruzkoa: I. titulua, «Atzeritarren eskubideak eta askatasunak» (3-24 artikulua).

28. gaia: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, ikuskizun publiko eta jolas jardueren buruzkoa: IV. titulua, «Zaintza, kontrola eta ikuskapena», I. kapitulua, «Xedapen komunak» (40. eta 41. artikulua), II. kapitulua, «Ikuskapena» (42-44 artikulua) eta III. kapitulua, «Segurtasun-neurriak» (45-49 artikulua); V. titulua, «Zehapen-araubidea», I. kapitulua «Arau-haustea» (50-54 artikulua).

29. gaia: 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearen Araudia onetsi zuena: IV. kapitulua «Ordutegiak» (32-38 artikulua).

30. gaia: 287/2002 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzearen araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena: Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak (2. artikulua) eta segurtasun-neurriak (8. artikulua).



31. gaia: 9/1983 Lege Organikoa, uztailaren 15ekoa, batzartzeko eskubidea arautzen duena: I. kapitulua, «Aplikazio-eremua» (1. eta 2. artikulua), II. kapitulua, «Xedapen orokorrak» (3-5 artikulua), eta IV. kapitulua, «Jendea igarotzen den lekuetan egiten diren batzarrak eta manifestazioak» (8-11 artikulua).

32. gaia: 2/1998 Legea, otsailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa: kautela neurriak (31. artikulua), funtzionario ikuskatzaileek kautela-neurri salbuespenezkoak ezartzea (32. artikulua), zehatze-prozedura izapidetzea (34-43 artikulua).

33. gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena: Delitua egitearen graduak (15-18 artikulua); Erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrak (21-23 artikulua).

34. gaia: Erantzukizun kriminaletik askatzen duten inguruabarrak: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 19. eta 20. artikulua.

35. gaia: Giza hilketa eta giza hilketaren formak: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 138-143 artikulua.

36. gaia: Lesioak: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 147-158 artikulua.

37. gaia: Askatasunaren aurkako delituak: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 163-172 ter artikulua.

38. gaia: Ohorearen aurkako delituak: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 205-216 artikulua.

39. gaia: Familia-harremanen aurkako delituak: Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 217-233 artikulua.

40. gaia: Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak (Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 234-304 artikulua).

41. gaia: Intimitatearen, norberaren irudirako eskubidearen eta bizilekuaren bortxaezintasunaren aurkako delituak (Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 197-204 artikulua).

42. gaia: 6/1984 Lege Organikoa, maiatzaren 24koa, «habeas corpus» prozedura arautzen duena.

43. gaia: Leku itxian sartzeta eta miatzea: poliziak bere autoritatez egiten duena bizilekuetan, leku berezietan eta beste leku batzuetan. Gauzatzea. Prozedura Kriminalleko Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onartua, 545-572 artikulua, eta Herritarren segurtasuna babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren III. kapituluko 15. artikulua.

44. gaia: Espazio Publikoaren Ordenantza, Bilboko Udalarena: II. titulua, «Espazio publikoan jarduketa jakin batzuk egiteko arauak» (16-24 artikulua).

45. gaia: Espazio Publikoaren Ordenantza, Bilboko Udalarena: V. titulua, «Ostalaritzako terrazak» (40. eta 41. artikulua), VI. titulua, «Kaleko salmenta» (53-54 artikulua), eta XI. titulua (Ikuskapen-araubidea, arau-haustea ezartzea, zehapenak eta zehapen-prozedura), II. kapitulua («Arau-haustea ezartzea eta arduradunak»), 121-126 artikulua.

46. gaia: Bilboko udalerrian animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Ordenantza: 5-21 artikulua.

47. gaia: IN-002 Gaitz psikiko iraunkorrak dituzten pertsonekin izandako polizia-jarduerak.

48. gaia: IN-003 Gorputz-miaketa.

49. gaia: IN-004 Identifikazioa.

50. gaia: IN-005 Desagertutako pertsonak.

51. gaia: IN-007 Nola kontrolatu adingabeek jokorako lokaletan sar ez daitezela eta jokoan parte har ez dezaten.



52. gaia: IN-008 Atxilotzea - nola atxilotu. IN-009 Atxiloketa eta atxilotuaren lekualdaketa.

53. gaia: IN-010 Adingabeen kasuan arrisku-egoerak goizik hautematea eta nola jardun behar den.

54. gaia: IN-011 Pertsona bereziki kalteberen kasuan arrisku-egoerak goizik hautematea eta nola jardun behar den. (Etxeko indarkeria / genero-indarkeria / sexu-delituak).

55. gaia: IN-012 Adineko pertsonengan arrisku-egoerak goizik hautematea eta nola jardun behar den.

56. gaia: IN-013 Pertsona bereziki kalteberen kasuan arrisku-egoerak goizik hautematea eta nola jardun behar den.

57. gaia: IN-014 Zigor Kodearen aplikazioa bide-segurtasunaren alorrean (Alkoholemien eta drogen tratamendua).

58. gaia: OG-020 Soinu-mailen neurketa.

59. gaia: Bilboko Udalarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmen markoa, Ertzaintzaren eta Udalzaingoaren arteko elkarlanerako.

60. gaia: Segurtasunerako Ituna Bilbon, 2018ko martxoaren 5ekoa.

Laguntzarako dokumentazioa

1-12 gaiak: gai horiei buruzko galdera sorta bat argitaratuko da web orri honetan: <https://ope.bilbao.eus>

13-17 gaiak: gai horietako bakoitzean aipatutako araudia, deialdi hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoena.

18. gaia: Aipatutako protokoloa web orri honetan argitaratuko da: <https://ope.bilbao.eus>

19-43 gaiak: gai horietako bakoitzean aipatutako araudia, deialdi hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoena.

44-46 gaiak: aipatutako ordenantzak Bilboko Udalaren webgune honetan daude daude (www.bilbao.eus), «Udala» atalaren barruan, «Udal araudia», «Ordenantza orokorrak».

47-60 gaiak: aipatutako barne-araudia web orri honetan argitaratuko da: <https://ope.bilbao.eus>

**II. ERANSKINA / ANEXO II
ESKAERA-ORRIA / MODELO DE SOLICITUD****ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN****1. Deialdia / Convocatoria**

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria:

Sartzeko sistemak Sistemas de acceso	Lehiaketa Concurso	☐	Oposizioa Oposición	☐	Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición	☐
Txanda / Turno	Askea Libre	☐	Barne sustapena Promoción interna	☐	Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con discapacidad	☐

2. Norberaren datuak / Datos personales

Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido		Izena / Nombre	
NAN-AIZ / DNI-NIE	Naziotasuna / Nacionalidad	Jaioteguna / Fecha de nacimiento		Sexua / Sexo E / M. ☐ G / H ☐	
Telefono finkoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil		Posta elektronikoa / Correo electrónico	

3. Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección		Ataria / Portal	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Eskua / Mano	Atea / Puerta
PK / CP:	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia		Herrialdea / País		

4. Euskara / Euskera

Profila egiaztatzen dut (jarri «X» dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una «X» el correspondiente)

1 HE / PL1	☐	2HE / PL2	☐	3HE / PL3	☐	4HE / PL4	☐
Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera							
1 HE / PL1	☐	2HE / PL2	☐	3HE / PL3	☐	4HE / PL4	☐

5. Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición

Euskara / Euskera	☐	Gaztelania / Castellano	☐
-------------------	--------------------------	-------------------------	--------------------------

6. Betebeharrak / Requisitos

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Deialdian eskatutako beste dokumentu batzuk (gidabaimena eta bestelakoak) / Otros documentos exigidos (permiso de conducir, otros)

Tasak deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.

**7. Merituak / Méritos**

Merituen zerrenda / Relación de méritos

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriako, eskaideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:

	Bilboko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Bilbao.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalari, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiaztatu ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al Ayuntamiento de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

☐	ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--------------------------	--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA
EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO

**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Bilboko Udaleko Gobernantzaren eta Proiektu Estrategikoen Saileko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritza da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Venezuela plaza, 2, 5. solairua, (48001-Bilbo)). Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoaren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, (48007-Bilbo)).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako titulua eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan-poltsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litekeen lan-poltsak kudeatzea denean. Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoieta oinarriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezereztzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos del Área de Gobernanza y Proyectos Estratégicos del Ayuntamiento de Bilbao, situada en Plaza Venezuela, 2, 5.ª planta, (48001-Bilbao). El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, 1, 5.ª planta, (48007-Bilbao).

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso selectivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (artículos 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10).

De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.